

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

40. astea (2025eko irailaren 29tik urriaren 5era)

Gripe-birusaren zirkulazioak goranzko joera du, lehen mailako arretako bronkiolitis diagnostikoek bezalaxe. COVID-19 kasuak nahikoa egonkor mantentzen dira.


- Lehen mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 353,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (308,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek azken asteetako goranzko joera mantentzen dute. COVID-19ak, aldiz, beheranzko joera du.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 37 lagin jagoleen % 70,3 baieztatu da, 4 SARS-CoV-2 detektatu direlarik, baina ez gripe-birusik ala ABSik. Aipatzekoak dira errinobirusaren 20 detekzioak.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 11,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (8,8/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 139 SARS-CoV-2, 119 gripe-birus eta 5 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen mailako arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 353,7 kasukoa izan da (308,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 266,5/100.000 izan da Araban, 383,2/100.000 Bizkaian eta 347,1/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 4058,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1714,9 eta 421,6 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 156,3 kasukoa izan da (131,3/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute aurreko astearekin alderatuta ESI guztietan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 40. astea	Tasa 39. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	288,3	251,8	1,15 (1,04-1,27)
Arabar Errioxako ESI	509,5	374,1	1,36 (0,93-2,01)
Barakaldo-Sestaoko ESI	370,7	269,5	1,39 (1,21-1,59)
Barrualde-Galdakaoko ESI	429,0	386,4	1,11 (1,03-1,20)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	409,6	332,3	1,24 (1,15-1,34)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	360,9	351,1	1,03 (0,92-1,16)
Uribeko ESI	272,7	247,8	1,11 (0,99-1,24)
Bidasoako ESI	368,6	313,4	1,19 (1,00-1,41)
Debararrenako ESI	363,5	310,2	1,18 (0,98-1,41)
Debagoienako ESI	251,2	197,9	1,28 (1,01-1,61)
Donostialdeako ESI	336,7	299,1	1,13 (1,04-1,23)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	371,9	359,8	1,04 (0,90-1,20)
Tolosaldeako ESI	322,7	311,1	1,04 (0,86-1,26)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

Gripe-sindromearen tasa LMAN 7,1 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (5,5/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) gora egin eta 230,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (160,3/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 9,4 kasura jaitsi da (10,7/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 37 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 70,3 baieztatu dira. 4 SARS-CoV-2 atzeman dira, baina ez gripe-birusik ala ABSik. 20 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasuna jaitsi eta % 10,8an kokatu da (% 15,6 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 12,5 aurreko astean) eta ABSren detekziozko atzeman gabe darrai LMAk. Errinobirusak oso positibotasun altua izan du berriro ere, % 54,1ean kokatuz (% 50,0 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE

	40. astea		39. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	4	12,5	0	0,0
SARS-CoV-2	4	10,8	5	15,6	4	10,8
ABS	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	2	5,4	4	12,5	2	5,4
Adenobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Errinobirus	20	54,1	16	50,0	20	54,1
Urtaroko CoV	1	2,7	1	3,1	1	2,7
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 11,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (8,8/100.000 aurreko astean), 12,1/100.000 gizonetan eta 11,0/100.000 emakumeetan.




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 72,6 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 33,1 eta 15,0 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 1,7koa izan da 100.000 biztanleko (0,8/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 1,0 kasukoa 100.000 biztanleko (1,0/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 9,7ra jaitsi da (% 13,4 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 19,1eraino igo da (% 10,9 aurreko astean) eta ABSrena % 0,6koa izan da (% 0,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasunak behera egin du, baina altu mantentzen da % 28,3an (% 37,5 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	40. astea		39. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	226	9,7	157	13,4	226	9,7
Influenza	178	19,1	119	10,9	178	19,1
ABS	166	0,6	112	0,0	166	0,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 139 SARS-CoV-2, 119 gripe-birus eta 5 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 119 gripe-birusetatik, 74 A motakoak izan dira, 13 A(H3) eta 32 A(H1)pdm09. 2025/40 astetik 119 detekzio erregistratu dira, 119 (% 100) A motakoak eta bat ere ez (% 0) B motakoa. Azpitipatutako A motako 45 birusetatik, 13 (% 28,9) A(H3) eta 32 (% 71,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko urriaren 8an

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza